


# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko martxoaren 7a / 532. zenbakia



KIROLA: TXIRRINDULARI AMATEURRAK/10 • SANTA MARINA: ERRETAULAK EGOKITZEN HASI DIRA/12

AZALA: INAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: EITB



Sinpletasunaren xarma.  
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

Egunkaria aurrera!

Orain! Inoiz baino gehiago euskarak behar zaituzte



Elkartasunerako kontu korrontea

k/k 3035.0014.62.0140053171



Kontu hau Topagunea Euskara Elkarten Federazioak ireki du: euskalgintzak jasandako kalteei aurre egiten kolaboratzea eta euskaldunok informatuta izateko dugun eskubidea bermatzen laguntzea du helburutzat diru bilketa honek.

**Egin zaitez harpidedun**

Dagoeneko baldin bazara ez bete

Izen abizenak \_\_\_\_\_  
 Helbidea \_\_\_\_\_ P.K. \_\_\_\_\_  
 Herria \_\_\_\_\_  
 Telefonoa \_\_\_\_\_  
 k / k \_\_\_\_\_  
 N.A \_\_\_\_\_  
 Jaioteguna \_\_\_\_\_ lanbidea \_\_\_\_\_

Eman zure herriko batzordeari edo bidali helbide honetara: Martin Ugalde Kultur Parke eraikin zuria, 20140 ANDOAIN. Bestela 943 30 35 55 / 943 30 35 54 telefonoetara deitu

## ATREBENTZIA EZ PADA / Tortura kasuen aurrian zer egin geinke herritarrok?



**JESUSA LARRAÑAGA**  
61 urte



**ARANTZASU EGAÑA**  
41 urte



**SAIOA BLAZQUEZ**  
20 urte



**HIGINIO UGARTEBURU**  
73 urte



**RACHAEL OLABARRIA**  
18 urte



**JESUS MARI VALOR**  
18 urte

Ez dakit, injustizia haundia pentsatzen jat gertatutakua, baiña zaila da erantzuten. Behintzat, danok *Egunero*-ren ale bana erosi geinke zerbaittetan laguntzeko.

Danok elkartuko bagiña gauza asko egiteko modua egongo litzake. Manifestaziñotara jun geinke, danok elkarrekin salatu, baita komunikabidietan be. Neri izugarrixa pentsatzen jat.

Lehenengo eta behin bera-rekin garela adierazi bihar jakola uste dot, eta, gero, herritarrok batu eta gertatutakua salatu, manifestaziñotara junez, esate bate-rako.

Eskuak eta hankak lotuta dauzkogu, eta zer egingo dogu ba... Guk salatu egin geinke holako kasuak kalian, egunero manifesta-ziñoak egin bihar badie be eginga.

Gehixago salatu biharko litzakela uste dot, oihartzun haundixagoa izan biharko zebala; izan be, danok siltzen bagara... Gizartiak badaki emoten dala, baiña ez da salatzen.

Izugarrixa pentsatzen jat. Nik uste dot herritarrok batu egin biharko giñala eta guztiok elkarrekin salatu biharko giñuzela holako gertakarixak. Aukera bat manifestaziñuak die.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK BIGARREN ILARAN APARKATZEN** Irakurle batek diosku birritan pentsatzen duela automobila Kruz Gallastegi edo Eroski aurrean aparkatzeko orduan. Askotan gertatu ei zaio bi toki horietan automobila aparkatu eta hartzera joatean ezin atera izatea bigarren ilaran beste auto bat dagoelako. Behintzat, autoa zabalik eta giltzak jarrita dituela uzteko eskatzen du. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5

KIROLAK / 10

KULTURA / 12

### Santa Marina birgaitzea

Beste urrats bati ekin diote: erretaula nagusia zaharberritzeko lanak hasi zituzten eguaztanean.

### Beti-Bustikoak, sasoi betean

Beti-Busti piraguismo taldea hirugarren sailkatu zen St. Pée de Bigorren jokaturako proban.

### Uxue Rodríguez kantaria

Hamaika urte ditu eta *Betizu taldea* izeneko diskoa kalératu berri du hiru kideekin batera.

## ASTEKODATUA

# 696

### ARATUSTEETAKO KONTZERTURA JOANDAKO LAGUNAK

Egubakoitzean, 696 herritar joan ziren bandak eta orkestrak emandako kontzertura. 1.700 euro inguru jaso zituzten, eta diru hori Josu Cifuentes umeari laguntzeko bideratu du Bergarako Udalak.

## BESTEKEESANA

**“Horrelako emaitza heltzen denean, guztiok geratzen gara gaizki, baina gure lanarekin jarraitu behar dugu inori begiratu gabe. Ez gara ondo sartu partiduan, askotan ez diozu azalpenik aurkitzen. Hiru jokaldi, hiru gol eta partidua badoa. AGUSTIN ARANTZABAL / Futbolaria 'Gara' / 03-03-03**

### AKATSAK ZUZENTZEN

Enplegu egonkorra sortzeagatik Udalak enpre sendako izendatu duen dirulaguntzaren albiste-an, “sortutako enpresa bakoitzeko 3.005 euroko laguntza” emango duela jarri genuen. Horren orde, “sortutako enplegu bakoitzeko” da zuzena.

## BERAIEK DIÑO / Mikel Elkoroberezibar



### Hitzetatik ekintzetara

**E**uskaldunon *Egunkaria*-rekin gertatutakoak agerian laga ditu Espainiako konstituzioaren miseria guztiak. Egun, Euskal Herrian, 2003an, egunkari bateko zuzendari batek torturak salatzea, beste lagun bati buruz astebete oso baten zehar ezer ez jakitea, inongo oinarri juridikorik gabe jesuita bat kartzelaratzera, ikastoletako informazioa inpunitate osoz eramatea, Euskal Herriko erakunde sindikal handienaren web orria zirkulaziotik kanpo lagatzea, kartzelaratu familiartekoak dispertsioaren erruleta hiltzailera bultzatzea, egunkari euskaldun bakarra ixtea... badirudi normala dela.

Guardia Zibilak erakutsi du, beste behin, oraindik ere hemen zeinek agintzen duen. Argi geratu da ez dagoela botere banaketarik, ez dagoela adierazpen askatasunik, ez direla

errespetatzen norbanakoen giza eskubideak eta ezta ere eskubide kolektiboak. Euskaldunok ez daukagu eskubiderik espainiar demokrazian.

Gauzak horrela, oraindik jarraitu behar dugu esaten hau demokrazia bat dela? Edo behingoz indarrak batzen ditugu Lizarra-Garazi garaietan moduan herri hau aurrera ateratzeko eta benetako demokraziara eramateko?

Hori horrela ez badugu egiten herri honek jai dauka. Izan ere hainbeste urtetan egindako lana ezin da geratu

Madrilgo gobernuan agintzen duenaren kapritxoan menpe.

Orain, txakur zaunkak ate askoren atzean geroz eta gertuago dauden beharrezkoa da Euskal Herriko gizarte eragile guztien artean akordio minimo batzuetara heltzea datorkigun marea berde-marroi-gorriari aurre egin nahi baldin badiogu. Hitzak politikak dira, baina orain ekintzak eta Eguneroko konpromisoak behar dira.

**“Guardia Zibilak erakutsi digu, beste behin, zeinek agintzen duen hemen, nor duen agintea”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 7**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 8**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- DOMEKA, 9**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 10**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 11**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 12**  
PUY. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- EGUENA, 13**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) ..... 943 76 24 40
- Bergarako Udaltzaingoa ..... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa ..... 943 76 62 46
- Ertzaintza ..... 943 76 53 40
- Osasun etxea ..... 943 76 24 40
- Asepeyo ..... 943 76 16 43
- Pakea ..... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua ..... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua ..... 943 76 62 23
- Odol emaleak ..... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak ..... 943 76 51 06

- GARRAIOK**
- Taxiak ..... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea ..... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea ..... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa ..... 943 77 91 32
- Igerilekuak ..... 943 76 20 51
- Kultura etxea ..... 943 77 91 58
- Liburutegia ..... 943 77 91 62
- Kiroldegia ..... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza ..... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia ..... 943 76 14 92
- Erregistroa ..... 943 76 13 15
- Jardun ..... 943 76 36 61
- Idolaz ..... 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara ..... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea ..... 943 76 26 85
- Bedelkar ..... 943 76 04 68
- Akulu AEK. .... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia ..... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza ..... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |                         |                                |
|-------------------------|--------------------------------|
| <b>San Pedro</b>        | <b>Labegaraieta</b>            |
| Domekak:                | Domekak: 11:00.                |
| 09:30, 12:30.           | <b>San Lorentzo</b>            |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00.               |
| 19:00.                  | <b>Angiozar</b>                |
| <b>Sierbak</b>          | Domekak: 11:30.                |
| Lanegunak: 19:15.       | <b>Moja Zaharrak</b>           |
| Zapatuak:               | Lanegunak: 09:00.              |
| 19:00.                  | Zapatuak: 11:00.               |
| Domekak:                | <b>Mizpirualde</b>             |
| 11:30, 13:00.           | Lanegunak: 11:45.              |
| <b>Osintxu</b>          | Zapatuak: 17:30.               |
| Domekak: 12:30.         | <b>Antzuola</b>                |
| Zapatuak: 19:00.        | Domekak:                       |
| <b>Elosu</b>            | 09:00, 11:30.                  |
| Domekak: 10:30.         | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| <b>Ubera</b>            | <b>Uzarraga</b>                |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 10:00.                |
| <b>San Juan</b>         | <b>Elgeta</b>                  |
| Domekak: 11:00.         | Lanegunak: 09:00.              |
| <b>Elorregi</b>         | Zapatuak: 19:30.               |
| Domekak: 10:30.         | Domekak: 12:00.                |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina (Sierbetan)**  
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOKKETA**  
Josu Cifuentes gaztetxoak jaso behar duen tratamendu ordaintzen laguntzeko, haren familiak eta lagunek hiru saski zokketatuko dituzte. Txartelak herriko tabernetan daude salgai. Era berean, hiru kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarran eta Banco Guipuzcoanon.

**1974AN JAIOTAKOAK**  
1974an jaiotakoen bazkaria, martxoaren 22an, Zabalan. Egun horretan Pol-Polen elkartuko dira, 12:00etan. Izenematea, Euskadiko Kutxan.

**RACING-REALA IKUSTERA JOATEKO IRTEERA**  
Martxoaren 16an Santanderrin Racing-Reala partidua ikustera joateko irteera antolatu dute. 10:00etan irtengo dira, frontoitik. Bidaiaren prezioa 12 euro da (sarrera aparte). Izenematea, Erreki erretegia, 943 76 38 51 telefonoan.

**IKASTAROAK KZGUNEAN**  
KZGuneak herritar guztientzako Informatika ikastaroak eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastaroak antolatu dituzte. Argibideak: 943 76 73 24.

**JARDUNENAGENDA**

**ASTE BUKAERAKO JARDUERAK**  
Txapligu taldean dabiltzan gaztetxoendako herri kirolak izango dira bihar, zapatua, Arrizurin, 16:00etan. Domekan, ordu eta toki berean, argazki ikastaroa izango da. Txiskrilabi taldekoek ere jarduerak izango dituzte zapatu arratsaldean, Udal Euskaltegian.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorentzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**

**Tavexek kale-ratutako langileen aldeko kale bilkura**

Tavex taldeko ELA eta CCOO sindikatuek enpresak kaleratutako 11 langileen aldeko kale bilkura egin zuten 1993ko martxoaren 1ean. Enpresak arrazoi teknologikoak eman zituen kaleratzeak justifikatzeko, baina sindikatuek atzetik arrazoi pertsonalak zeudela salatzen zuten.



**BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru**



*"Dindirrixa"*

Sudurretako izerdia.  
Surretatik dindirrixa, katarrua....  
Surretako dindirrixa, izardixa beti.

**ASTEKOFILMAK**

**'ATRÁPAME SI PUEDES'**

ZUZENDARIA: STEVEN SPIELBERG. AKTO-REAK: LEONARDO DI CAPRIO, TOM HANKS.

**HARIA.** Frank Abagnale-k uniforme bat alokatu eta pilotuarena egingo du, iruzurrak eginez. FBI-ko agente bat izango du atzetik...

**TOKIA ETA ORDUA.** Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



**'HABLE CON ELLA'**

ZUZENDARIA: PEDRO ALMODÓVAR. AKTO-REAK: JAVIER CÁMARA, LEONOR WATLING, ROSARIO FLORES, DARIO GRANDINETTI.

**HARIA.** Patuak lotutako bi gizonen gorabeherak kontatzen dira istorio honetan. Bien arteko adiskidetasuna, bakardadea eta elkar-riketza bizirik irauteko ariketa bezala agertzen dira. Filmak Oscarretarako bi izendapen izan ditu, zuzendari eta gidoi onenari dagozkienak, hain zuzen ere.

**TOKIA ETA ORDUA.** Eguenean (martxoak 13), 20:00etan. Zinekluba.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

**BERGARA Margoak**



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

**SANTA MARINA/** Eliza barruko eta kanpoko lanak aldi berean egingo dituzte eta udarako amaitzea espero dute arduradunek

# Santa Marinako erretaula nagusia eta beste sei txikiago zaharberritzen hasi dira

MONIKA BELASTEGI

Santa Marina eliza zaharberritzeko eta egokitzeko lanak aurrera doaz. Aste honetan beste urrats bat eman dute: erretaula nagusia, alboetako laurak eta koro azpiko biak zaharberritzen hasi dira. Lanok hiru hilabete inguru iraungo dute.

Zazpi dira guztira zaharberrituko dituzten erretaulak, elizak dituen guztiak, hain justu. Orain dela urte batzuk erretaula nagusiaren egitura egokitu eta egonkortu zuten. Hori horrela, orain, batik bat, garbitze lana egingo dute erretaula guztietan.

Urteen poderioz eransten joan zaien hautsa garbitzeaz gain, erretaulako egurrari berniza kenduko diote berezko egoeran lagatzeko, eta xilofagoen kontrako tratamendu berezia emango diote. Horrez gain, irudien kasuan, horiek ere garbitu egingo dituzte, eta irudi polikromatuen kasuan, originalak ez diren margoak kendu egingo dizkiete.

Lan horiek hiru hilabete inguru iraungo dute, eta Restauraciones Siglo XXI enpresak egingo ditu; gangetan azaldu ziren margoak eta paretetako margolanak zaharberritzen diharduen enpresa berak, hain justu ere.

## ORAINDIK EGITEKO DAUDENAK

Lanon helburua da parrokiaren erabilpena ziurtatzea eta patrimonioa zaintzea. Horretarako, parrokiaren barruko eta kanpoko aldean egingo dituzte konponketa lanak. Iazko uztailean itxi zuten eliza, lanei ekiteko, eta ordutik hona lan mardulenak egin dituzte elizaren barruko aldean: besteak beste, argi eta bero-



MONIKA BELASTEGI

Erretaula nagusia egokitzeko aldarmioak jarri dituzte; zoruko harria ere garbitzen dihardute, irudian ikusten denez.

*Batik bat, garbitu egingo dituzte erretaulak eta haietan dauden irudiak*

gailu sistema berriak jarri dituzte, baita pareta, zutabe eta sabaia-ri dagozkion hainbat hobekuntza egin ere. Dena dela, oraindik hainbat lan falta dira egiteko eli-

*Eliza barruan egiteko falta direnak kanpoko aldeko egokitze lanekin batera egingo dira*

za barruan. Egunotan zoruko harria garbitzen dihardute eta horren ondoren egurrezko tarima jarriko dute. Bestetik, sarrerako ateak egokitu dituzte, bai-

*Udararako Santa Marina zaharberrituta egongo dela uste dute arduradunek*

ta elizaren ertzetako aukiteria guztia ere. Gainera, presbiterioari dagokionez, bataiarria lekuz aldatuko dute eta presbiteriora igotzeko erraztasunak emateko

asmoz maldatxo bat egingo dute. Horrez guztiaz gainera, organoa berrituko dute: garbitzeaz gainera, motorra aldatuko diote.

Barruko aldeko lanak kanpoko aldean egin behar diren beste batzuekin batera egingo dituzte: elizaren pareta guztiak egokitu dituzte, ingurua zolatu eta argiztatu. Horrez gainera, kanpaiak konponduko dituzte, euskarriak gogortu egingo dituzte eta informatizatu egingo dituzte.

Udararako lan guztiak amaituta egongo direla uste dute elizako iturriek.

## Igerilekua, datorren asteburuan zabalik

M.B.

Kirol Zerbitzuetako iturrien esanetan, datorren asteburuan zabalduko dute kanpoko igerileku txiki estalia; martxoaren 15ean edo 16an zabalduko dute ziurrenik, nahiz eta oraindik datarik ez duten zehaztu.


Obrak ia bukatuta daude eta igerilekua zabalteko baimen batzuk besterik falta ez direla aurreratu dute Udaletik.

## SARRERA BERRIA, ORDUTEGI BERA

Igerilekura joan nahi duten herritarrek kontuan hartu beharko


dute sarrera berria egin dutela. Ipintza Institutuko patiotik sartu beharko da igerileku estali berrira. Sarrera berri horrek zuzenean aldageletara ematen du eta aldagelek, berriz, igerilekura.

Ordutegiari dagokionez, lehengo berbera izango du: astelehenetik egubakoitzera, 07:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan, berriz, 08:00etatik 19:00etara. Domeken eta jaiegunen kasuan, baliteke arratsalde ez bezala, Bergarako Udaleko iturrien esanetan.



MONIKA BELASTEGI

Igerileku berriak egin aurretik kanpoko txikia estaltzea erabaki zuen Udalak behin-behineko irtenbide moduan.



Arkuaren aurreko aldean egingo dute plazatxoa, eta sarrera Boluko aldatatik izango du.

MONIKA BELASTEGI

**HIRIGINTZA/** Lehiaketara enpresa bat aurkeztu da eta Udalak hutsik uztea erabaki du

## Errotalden plazatxoa egiteko lanak lehiaketara bigarrenengoz

MONIKA BELASTEGI

Errotalde parkean Santa Ana ermita ondoko eraikina botatzean agerian geratutako XVI. mendeko arkuak luzitu eta parkeko sarrera berria egiteko lanak bigarrenengoz aterako ditu lehiaketara Bergarako Udalak. Datorren astean aterako ditu berriz baldintzak.

Enpresa bakarra aurkeztu da lehiaketara, eta deialdia hutsik lagatzea erabaki du Udalak. Izan ere, 42.103 euroko gastua zehaztu zuen Udalak baldintzotan, eta aurkeztutako enpresak gainditu egin du aipatutako kopurua. Hala

ere, datorren astean berriz aurkeztuko dituzte baldintzak lehiaketara, Udaleko iturriek jakitera eman dutenez.

Udalaren asmoa da Errotalde parkeko sarrera berria egitea eta plaza txiki bat eraikitzea, ermita ondoko eraikina botatzean agerian geratu zen XVI. mendeko arkuaren eta horma zatia- ren ondoan.

Udal ordezkarien esanetan, arkuak eta horma zatia Arruriaga errebaleko etxe baten arrastoak dira, seguruenik. XVII. mendean Errotalde jauregiko jabeek inguruetako etxeak erosi zituzten euren jauregia etxe gabeko inguru zabal baten egoteko. Liteke-

na da errebaleko etxe haren zatia aprobetxatu izana iaz eraitsi zuten eraikina egiteko.

### PROIEKTU ZABALAGOA

Errotalde parkea berriz antolatzeko proiektuaren barruan daude lehiaketara atera dituzten lanak. Berrantolaketa hori hiru fasetan egiteko asmoa du Udalak: lehenengoan, Santa Ana ermitaren estalkia konpondu zuten; bigarrenean, ermitaren ondoko eraikina bota zuten eta arkuak azaltzean orain esleitu nahi duten azpi-proiektua egin zuten. Fase berean ermita barrutik konpontzeko asmoa dago; eta hirugarrenean, parkea.

## Txorimalo Lehiaketan izena emateko epea zabaldu dute

MONIKA BELASTEGI

Azken urteotan moduan, Txorimalo Lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak Erramu-zapatuko feriarako. Edonork har dezake parte, eta lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 4a da.

Bakarka zein taldean har daiteke parte lehiaketan, baina taldean izanez gero, ezin izango da zortzi lagun baino gehiagokoa izan. Txorimaloak egiteko edozein material erabil daiteke, baina ardatz bat izan beharko du lurrean tinko geratzeko, edo oinarri sendoa bestela.

Lehiaketa hiru taldetan banatu dute: 12 urtetik beherakoak, 12 eta 60 urte artekoak eta 60 urtetik gorakoak. Txorimaloak ikusgai egongo dira Erramu-zapatuko ferian, 11:00etan, Ibargarai kalean. Sari banaketa egun berean egingo dute, 12:30ean, Ibargarai kalean. Sarietarako dagokienez, honako hauek banatuko dituzte: lehenengo taldeko hiru onenek egun baterako bidaiak jasoko dute; bigarren taldeko lehen sari-tuak 90 euro jasoko ditu (dirutan edo materialean) eta bigarrenak,



Erramu-zapatuan egongo dira ikusgai.

60; hirugarren taldearen kasuan, irabazleak 90 euro jasoko ditu eta bigarrenak, 60. Horrez guztiaz gain, txorimaloari esaldi onena eransten dionak 60 euro jasoko ditu (dirutan edo materialean).

Izena emateko azken eguna apirilaren 4a da, eta izenematea Jardun elkartearen (Errotalde jauregia) edo honako telefono zenbakietan egin daiteke: 943 76 36 61 edo 943 76 08 19.

## 'Egunkaria'-ren aldeko kanpaina abiaraziko dute

MONIKA BELASTEGI

*Egunkaria*-ren aldeko kanpainarekin bat eginik herri batzordea osatzeko lehen urratsak eman dituzte gurean ere. Aurreko egunean hainbat herritar batu zen batzordea eratzeko lehen batzarrean. Batzorde horren helburua da, besteak beste, *Egunkaria*-ko langileek abiarazitako harpide kanpaina herrian zabaltzea.

Egueneko batzar haren ondoren, euskalgintzan diharduten taldeak (Jardun, AEK, Udal Euskalategia, EHE, Udaleko Euskara Zerbitzua eta ikastetxeak) beste batzar bat egitekoak ziren atzo, eguena. Batzar horretan, harpide kanpaina herriko denetarikotaldeetara helarazteko bidea erabakitzeak ziren. Bestalde, *Egunkaria*-ko kamisetak salgai daude Pol-Polen eta Arranon.



## Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Bergarako Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2003ko zergaren errolda onartu berri du. Otsailaren 28an onartu zuen, hain justu ere. Hori horrela, 30 eguneko epea zabaldu dute errolda horren aurkako errekurtsioak aurkezteko.

Bestalde, zerga ordaintzeko borondatezko epea dagoeneko zabalik dago, eta maiatzaren 31n itxiko dute. Ekainaren 2tik aurrera errekararekin kobratuko dutela jakinarazi dute Kontu-hartzailetzatik. /M.B.

## LABUR

### Turismo Bulegoa apirilaren 14tik irailaren 30era arte egongo da zabalik, eten barik

Turismo Bulegoaren egutegia onartu berri du Gobernu batzordeak. Zerbitzua ahalik eta denbora luzeen eskaintzeko ahaleginean, urte batetik bestera egun gehiagoz egoten da zabalik. Aurretik, apirilaren 14an irekiko dute Aste Santuko oporretarako, eta udako opor ostera arte, irailaren 30era arte, ez dute itxiko.

Horren ondoren, abenduan berriz irekiko dute, 6an, 7an eta 8an, Kontzezinoko jaiarekin bat eginez.

### Martxoaren 15ean Autodeterminazioaren Aldeko Topaketetan parte hartzeko autobusa

Ta segi aurrera... herri plataformak autobusa antolatu du martxoaren 15ean Bilboko Erakustazokan egingo diren Autodeterminazioaren Aldeko Topaketetara joateko. Autobuserako izena Pol-Pol, Kortazar eta Arrano tabernetan eman daiteke.

Topaketotan Autodeterminazioaren Bilguneak antolatutako hainbat ekitaldi politiko eta kultural egongo dira, besteak beste.

# Batzuek eusten dioten arren, gero eta jende gutxiago mozorrotzen da Aratusteetan

MONIKA BELASTEGI

Joan dira Aratusteak. Zenbat buruhauste mozorroa erabakitzeko eta prestatzeko, eta berehala joan zaizkigu.

Egubakoitzean, Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastoletako neska-mutikoeak alaitu zuten arratsaldea. Kaleetan barrena ibili ziren, bozgorailuak aldean zituztela, musika ozen bai ozen eta dantza baten.

Zapatuan, umeak bai, baina nagusiak ere animatu ziren mozorrotzera. Dena dela, Aratusteek behera egin dutela agerian geratu zen. Dagoeneko ez da hainbeste jende mozorrotzen, eta giroak behera egin du nabarmen. Hala eta guztiz ere, batzuek eusten diote eta, besteak beste, indiarak, pailazoak eta mexikarrak ikusi genituen.

Martitzenen arratsaldean ere umeek, batik bat, alaitu zituzten herriko kaleak. San Martin Ikastetxeko neska-mutikoeak kalez kale ibili ziren mozorroa soinean zutela, eta hainbat dantza egin zituzten San Martin plazan.

Horrez guztiaz gainera, irudiotan ikusten dituzuen punkak, behizainak, andaluziarrak eta *Zipi eta Zape* ere kalera irten ziren martitzen arratsaldean, eta iluntzean sardina-ehorzketa egin zuten.

Dagoeneko Aratusteak amaitu dira, eta orain ikustear dago nork alaitu dituen gehien herriko kaleak. Hori Bedelkarrek, herriko dendarien elkarteak, erabakiko du, eta ohore hori jasotzen duenari 150 euroko afari-merienda emango diote.

*Herriko umeek, batik bat, alaitu dute herria egubakoitzetik martitzenera*



Mariaren Lagundiko ikasleak barazki eta txorimalo jantzi ziren egubakoitzean.



Aranzadi Ikastolakoak kometa eta euskal Inauterietako pertsonaia bihurtu ziren.



San Martin Ikastetxekoaren artean, begira zein egiptiar politak aurkitu ditugun.



*Zipi eta Zape*, ezin geldi egon. Begira zer-nolako belauak dituzten bestela.



800 balas filmetik ihes egingo ote zuen ba neska koadrila horrek?



Seme-alabak baino modernoagoa denik ere bazebilen martitzenera.



*Ole eta Ole*: laukote hori Apirileko Feriarako gertu dago.



2002ko abuztuan ez ziren ba 25 urte bete Elvis hil zela?



## KATABIATIK ESTAZIORA DOAN BIDEA KONPONTZEN

**K**atabiatik Beheko Estaziora doan trenbide zaharraren bidea konpontzen dabilta egunotan. Zorua egokitu eta asfalto gorria bota dute eta eserlekuak jarri dituzte (gehiago jartzea falta da oraindik). Era berean, berdeguneak eta argiak jarriko dituzte bidearen alboetan. Ertzainen komisaldegitik Algodonerako tunel hasieraraino doan zatian ere antzeko lanak egingo dituzte. Bazen bidea konpontzeko garaia...




## BERGARA KIROL ELKARTEKO ZOZKETA

**B**ergara KEk hilabetero egiten duen zozketan Anselmo Gómez izan da otsaileko irabazlea. 0092 izan da saritutako zenbakia eta Anselmok saski ederra eta Etxeberria erlojutegian erabiltzeko 240 euroko erosketa bonoa jaso du. Anselmok kiroldegiko tabernan erosi zuen saritutako txartela. Argazkian, Jon Ander Egaña Etxeberria erlojutegikoa Anselmorekin eta honen semearekin, Josu.



## SANTA MARINAKO ERLOJUA

**S**anta Marinako erlojua gelditu egin da hainbat aldiz azken asteetan. Juanito Idigoras arduratzen da erlojua zaintzeaz azken 40 urteotan eta beraz esan digunez elektrizitate arazoengatik eta Santa Marinaran egiten diharduten obrenengatik izan dira arazoak. Berrito martxan dabil, nahiz eta gaez ezin ikusi, argirik ez dauka-eta azken asteotan.



# Herran

### ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3  
943 76 12 22

### SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4  
943 76 37 53

vegasa





MINGAINARITIRAKA



Olatz  
Urkiola

IRIMO MOVISTAR DENDAKOA

Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta bi urtez irakasle lanetan ibili zen Bergarako AEK-ko euskaltegian. Joan den urteko apirila ezkeror Irimo Movistar dendako saltzailea dugu. 27 urte ditu eta aquareus zeinukoa da.

Neurrian erabiltzen dugu poltsikoko telefonoa?

Ez, ohitura txarrak hartu ditugu-eta.

Deiak egin ala mezuak bidali, zer nahiago?

Deiak egin.

Zurè lanerako ezinbesteko gaitasuna?

Pazientzia.

Zein sintonia daukazu poltsikoko telefonoan?

Normala, ez daukat beste munduko ezer.

Internet-zalea zara?

Bai, gero eta zaleago, gainera. Nire gustuko zaletasunen inguruko gauzak topatzeko erabiltzen dut.

Mutil bati zeri erreparatzen diozu lehenbizi?

Izaerari.

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Aisialdiari.

Eta aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Paseatzea, irakurtzea... Etxetik kanpo ibiltzea gustatzen zait.

Zerk jartzen zaitu sutan?

Jendeak kasurik egiten ez didanean jartzen naiz sutan.

Kirolak egiten duzu?

Egin beharko nukeena baino gutxiago. Bizikleta atsegin dut.

Telebistako saio bat? Ikusi ezin duzun beste bat?

Los Simpson; Gran Hermano, berriz, ezin dut ikusi ere egin.

Ezagutu nahiko zenukeen pertsonaiaren bat?

Cleopatra. Emakume bitxia izan behar zuen.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat?

La piel del tambor (Pérez-Reverte)/Mejor...imposible/Bon Jovi.

Urtarorik gustukoena/Gustuko jantzi bat/ Kolore bat?

Uda/Praka bakeroak/Gorria.

Mozorroto zara Inauterietan?

Ez, Inauteriak ez zaizkit batere gustatzen.

Aste bukaerarako plan on bat?

Kostaldeko herri batera joatea; Lekeitiora, adibidez.

Bidaia bat nora egingo zenuke?

Egipto bisitatzeko gogoia daukat.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Amaia Zabaleta

NORVEGIA / 1994ko ekainean

**E**HNE sindikatuak Norvegiako baserriarren sindikatuarekin batera antolatutako bidaia bati esker Norvegia ezagutzeko aukera izan nuen 1994ko ekainean. Astebete eman genuen Norwegian, eta gurekin batera Estatuko beste sindikatu batzuetako ordezkariak ere egon ziren. Bergararik Maite Aristegi eta biok joan ginen, eta Paul Nicholson EHNEko Kanpo Harremanetarako arduradunak ere hartu zuen parte bidaian, besteak beste. Guztira, 30 lagun inguru egon ginen.

Norvegiako beheko partean, hegoaldean, Telemark izeneko ibar inguruan ibili ginen, Oslo hiriburutik nahiko gertu, hain zuzen ere. Esan bezala, San Juanen inguruan izan ginen Norwegian, eta udako solstizioa zela eta, egunak oso luzeak ziren eta gauek bizpahiru ordu irauten zuten, iluntasun nabarmen barik, gainera. Gauetako argitasuna berezia zen gaueko hama-bietatik aurrera, eta 03:00ak aldera berriro zabaltzen zuen egunak. Benetan zoragarria eta aldi berean oso arraroa zen sentazio hura.

Egunak urteko luzeenak zirenez, jendeak ondo aprobetxatzen zituen, eta Oslon, esaterako, normala zen egun argiz diskotekatik irten eta sekulako jendetza ikustea kalean. Negu luzea daukate norve-



*“Udako solstizioa zela eta, egunak oso luzeak ziren eta gauek bizpahiru ordu irauten zuten”*

*“Fiordoak eta glaziarrak ikustekoak dira, eta norvegiarren izaera zabala ere azpimarratuko nuke”*

giarrek, eta ondo baino hobeto dakite udako solstizioari etekina ateratzen. Oslo, bestalde, oso hiri atsegina iruditu zitzaigun, eta Eskandinaviako hiriek duten xarma berezia dauka. Norvegia bizimodu maila hoberenetako duen herrialdea da eta kultura ere horrelakoa dute, aberatsa. Esate baterako, solidaritatea asko bultzatzen duen herrialdea da Norvegia, eta elizetan (luteranoak dira nagusi han) Hirugarren Mundurako laguntzari berebiziko garrantzia ematen diote. Palestinako auzian edo Irakekoan bitartekari lanetan eskandinaviarrak ibiltzea ez da harritzekoa, jarra berezia dutelako.

Oslotik inguruko herrietara joateko autobusez ibiltzen ginen. Ikaragarria da zenbat ur daukaten. Laku pilo bat dituzte, eta, horren ondorioz, erraztasun handia daukate nork bere argindarra sortzeko. Natura asko zaintzen dute (%60 basoa da), eta arbolak (urkiak eta pinuak, batez ere) botatzeko zein landatzeko kontrol zorrotza daramatzate. Fiordoak eta glaziarrak ikustekoak dira. Bestalde, norvegiarren izaera zabala ere azpimarratuko nuke. Eta, zelan ez, hango ohiko jaki ketuak, izokina, elur-oreina edo oreina, adibidez.

EDU MENDIBIL



Urri Urizar arrasatearra eta Amaia Zabaleta, Norvegiako glaziar eremu baten ateratako argazkian.

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



San Pedro 21    Ibargarai 44-46  
BERGARA    BERGARA  
943 76 20 49    943 76 45 53

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13



gizon & emakume

Barrenkalea 35  
BERGARA



**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara

TXIRRINDULARITZA

# Lokatzako harrobitik irtendako lau lagun amateur mailan lehiatuko dira aurten

Ander Agirrek laugarren urtea beteko du Ulma-Cegasan eta Debabarrena taldean Iñaki De Benito, Iñigo Larrañaga eta Zigor Medina izango dira

EDU MENDIBIL

**Txirrindulari denboraldia abian da. Amateur mailako tropelean Lokatzako harrobitik irtendako lau lagun ibiliko dira aurten: Ander Agirrek Ulma-Cegasarekin korrituko du eta Iñigo Larrañaga, Zigor Medina eta Iñaki De Benito Debabarrena taldean izango dira.**

Laurak, esan bezala, Lokatzako taldeetan ibilitakoak dira. Ander Agirre da guztien artean beterranoena, 21 urterekin. Aurtengoa laugarren denboraldia izango du amateur mailan. Eugenio Goikoetxea izango da bere zuzendaria. Iaz egindakoa hobetzea da Anderren helburua: "Jausiekin eta zorte txarra izan nuen aurreko denboraldian, eta ea gauzak hobeto irteten zaizkidan aurten". Anderrek Euskalduna Txapelketako probetan hartuko du parte. Zapatuan Santanderren korritu zuen lehenbiziko proba eta bihar, berriz, Larrabetzun izango du lasterketa. Bere burua definitzeko orduan, ondoen aldapan gora ibiltzen dela dio. Era berean, bere lagunei inolako gomendiorik eman dien galdetu genion Anderri: "Errepidean ikusiko dute zer daukaten..."

Juanjo Sebastian zuzendariaren aginduetara, Zigor Medina (19 urte), Iñaki De Benito (19



Argazkian, ezkerretik eskumara, Ander Agirre, Iñaki De Benito, Zigor Medina eta Iñigo Larrañaga.

urte) eta Iñigo Larrañaga (18 urte) Debabarrena taldean izango ditugu. Medinak bigarren denboraldia izango du amateurretan eta Larrañaga eta De Benito debutariak izango ditugu. Hirurek ere

bat egiten dute terreno guztietan antzera dabilzala esateko orduan. Lehen eta bigarren urteko amateurrei zuzendutako Lehendakari Txapelketako probetan hartuko dute parte, eta

sufritzea tokatuko zaiela uste dute. Zera esan digu Medinak: "Lehendakari probetan ondo ibili nahiko nuke eta Euskaldunako lasterketatan bukatzearekin konformatzen naiz". Gazte mai-

latik amateur maila igarotzerakoan, jautzia nahiko handia dela dio: "Amateur mailako probak erritmo handiz korritzen dira, lauan zein aldapan gora, eta asko sufritzen da". Neguan gogor entrenatu ondoren, errepidean euren onena emateko ordua heldu zate lauri. Debabarrena taldeko txirrindulariek domekan izan zuten lehenbiziko proba, Laudion, eta martitzenean oraindik ez zekiten bihar Asteasun korrituko duten edo ez. Hemendik irailera bitartean ia astero lasterketaren bat izango dute. Larrañagak eta De Benitok lehenbailehen maila berrira egokitzeko helburua daukate. Larrañaga nahi baino gutxiago entrenatu ahal izan da neguan, ikasketengatik: "Ikasketei ematen diet lehentasuna, eta txirrindularitza zaletasuna da niretako. Arrasaten ikasten nabil, eta ez dut nahi beste denbora entrenatzeko. Hala ere, amateur mailan lehiatzeko aukera izanda, probatu egin nahi nuen, eta ikusiko dugu zelan moldatzen garen". Aitarekin lanean dabilen Zigor Medinak izan ezik, gainerako hirurek ikasten dihardute, eta liburuek uzten dieten tarteak entrenatzeko aprobetxatzen dute. Laurrek ere ilusio handiarekin ekin diote denboraldi berriari. Datoren martxoaren 30ean Bergaran ikusteko aukera izango dugu, Gorkako Igoeran.

## Beti-Busti taldea hirugarren izan zen St. Pée de Bigorren

E.M.

**Beti-Busti piraguismo taldea hirugarren sailkatu zen otsailaren 23an St. Pée de Bigorren jokaturako Euskadiko Kopako ur bizietako proban. Banaka ere emaitza bikainak lortu zituzten Beti-Bustiko ordezkariak.**

Esan bezala, Euskadiko Kopako ur bizietako proba St. Pée de Bigorren jokatu zen, Lourdes ondoan, hain zuzen ere. Taldekako sailkapenean Beti-Busti hirugarren sailkatu zen, Atletico San Sebastian eta Irungo Santiagotarrak taldeen atzetik.

Banaka ere bikain ibili ziren Beti-Busti taldeko piraguitak. Hala, ur bizietan ondo baino hobeto moldatzen direla erakutsi zuten. Leire Fernándezek urrezko domina lortu zuen infantil mailan eta kadete mailan, berriz,

Martxel Alberdi, Markel Cestafe eta Ibon Etxezarreta laugarren, bosgarren eta zortzigarren izan genituen, hurrenez hurren. Junior mailan, Lierni Errasti laugarren tokian geratu zen emakumezkoen artean, eta gertu izan zuen brontzezko domina. Gizonzkoetan, berriz, Iraitx Artolak hirugarren postua eskuratu zuen eta brontzezko domina ekarri zuen Bergarara, eta Markel Agirre bosgarren sailkatu zen. Azkenik, senior mailan, Roberto Puy hamargarrena izan zen eta Eneko Iturrospe hamaikagarren geratu zen.

### DIPUTAZIOAN HARRERA

Bestalde, joan den urtean Gipuzkoa mailan nabarmendutako goi mailako kirolarietako harrera eskaini zien Diputazioak joan den astean, otsailaren 26an. Roman Sudupe diputatu nagusiarekin eta Luis Mari Bandres Kirol diputatua-

rekin kirol askotako ordezkariak izan ziren, tartean Beti-Busti taldeko Markel Agirre ere. Agirrek kadete mailako Espainiako Txapelketa eskuratu zuen iaz.

Markel Agirrek berak eta Iraitx Artolak Espainiako Selezioarekin kontzentrazioa egingo dute martxoaren 5etik 9ra bitartean Seo d'Urgellen (Lleida).

### DIRULAGUNTZA, EZINBESTEKOA

Beti-Busti taldeko arduradunen esanetan, "piraguismo taldea handituz doa eta kirol mailako lorpenak ere gero eta nabariagoak dira. Aldi berean, gastuak ere handituz doaz, eta horiei aurre egiteko orain arte jaso ditugun dirulaguntzak urri geratzen zaizkigu momentu honetan. Horregatik, dei egin nahi diegu herriko edo Debagoienako enpresa, elkarte edo erakundeei, ahal duten neurrian taldearen babesle lanetan parte hartzera".



Leire Fernándezek urrezko domina lortu zuen St. Pée de Bigorren, infantil mailan.



## Tenis Txapelketako partiduak, bihar eta etzi, kiroldegian

E.M.

**Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatutako Tenis Txapelketaren barruan, hainbat partidu jokatu dira aste bukaeran kiroldegian. Guztira, 16 lagunek dihardute txapelketan, lau multzotan banatuta.**

Bihar, zapatua, honako partidu hauek jokatu dira Labegaraletako tenis pistan: Gaizka Oruna-Juan Luis Etxaniz (09:30ean), Ismael Zubia-Roberto Limeres (11:00etan), Ricardo Briñas-Juan Ignacio Igartua (12:30ean), Ander Oñaederra-Asier Mujika (16:00etan), Gorka Inurrategi-Jokin Bengoa (17:30ean) eta Jose Caballero-Pedro Anduaga (19:00etan). Domeka goizean, berriz, bi partidu izango dira: Jesus Anduaga eta Joseba Azkar-

gorta aurrez aurre izango dira 11:00etan eta horren ondoren, 12:30ean, Roberto Irizarrek eta Jesus Kortabarriak neurtuko dituzte indarrak. Partiduak hiru setera jokatzeko dira.

Esan bezala, 16 jokalarik dabil-tza lehiatzen eta zortzi onenak sailkatuko dira bigarren faseko. Final-laurdenak eta finalerdia kanporaketa bidez erabakiko dira. Finala apirilaren 27an jokatu da.

Tenis Txapelketa Debagoieneko txapelketa zirkuiturako puntuagarria da, azken urteotan moduan. Hortaz, txapelak 12 puntu eskuratuko ditu, txapelak 10 puntu, hirugarrenak 9 puntu eta laugarren sailkatzen denak, 8 puntu. Era berean, final-laurdenetara iristen diren jokalariek seina puntu lortuko dituzte.



Ismael Zubia eta Jorge Aranes, 2001 urteko finalistak.

## Pilota partiduak, gaur eta eguaztenean, pilotalekuan

E.M.

**Bergara KEko pilotariak Udaberriko Txapelketan jarraitzen dute. Gaur, egubakoitza, partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Eguaztenean, berriz, Debarroko Txapelketari ekingo diote.**

Gaurko jaialdia 19:30ean hasiko da eta, Udaberriko Txapelketaren barruan, lau partidu jokatu dira: kadete mailako lehen eta bigarren bikoteak San Esteban taldeko bikoteen aurka neurtuko dituzte indarrak; jarraian, Bergarako eta Aretxabaletako gazte mailako bikoteak izango dira aurrez aurre eta, azkenik, senior mailako bigarren bikoteak Lazkaoren aurka jokatu du.

Kadete mailako bikoteak galdu egin zuten egubakoitzean: Eneko Muguruzak eta Aitor Osak Lazkaoren aurka galdu zuten (22-4) eta Oier Aldaik eta Jon Larrañagak bi tantogatik galdu zuten

Ordizian, 22-20.

Bestalde, Bergara KEko bikoteak Deba arrokoko Txapelketan hasiko dira eguaztenean, hilaren 12an, 20:00etan Udal Pilotalekuan. Antzuolaren aurka jokatu dute, kadete eta senior mailan. Antzuolarrak ez daukate gazte mailako bikoterik eta, beraz, Bergarako bikoteak atsedena izango du.

### BOST FUTBOL PARTIDU

Bost partidu jokatu dira aste bukaeran Bergaran. Bihar, zapatua, Euskal Ligan diharduen Bergarako taldeak Lengokoak hartuko du Aigorrosin, 16:15ean. Horren ondoren, bigarren erregionaleko Bergara eta Aretxabaletako taldeen arteko partiduak izango dira Ipintzan, 18:00etan. Domekan, berriz, hiru partidu jokatu dira Ipintzan: Bergara-Ostadar infantil mailakoa (10:30), Bergara-Eskolapioak bigarren mailako gazteena (12:00) eta Bergara-Ilintxa nesken arteko partiduak (17:15).

Senior mailako mutilen taldeak behar-beharrezkoa du bihar Ormaiztegi irabaztea.

ARTXIBOA

### ESKUBALOIA

## Senior mutilen taldea Ormaiztegi irabazi beharrean bihar, zapatua

Bergarak eta Ormaiztegi jaisiera postuetatik ihes egiteko lehiatzen dihardute

E.M.

**Senior mailako mutilen eskubaloia taldeak Ormaiztegi irabazi beharrean, zapatua, kiroldegian, 17:00etan. Jaisiera postuetatik ihes egiteko, etxekoek beharrezkoa dute irabaztea.**

Euskadiko Txapelketan 14 taldek dihardute eta Bergara eta Ormaiztegi elkarren ondoan daude sailkapenean, 12. eta 13. postuetan hurrenez hurren. Gauzak horrela eta liga amaitzeko sei jardunaldi besterik ez denean falta, etxekoek behar-beharrezkoa dute bihar Ormaiztegi irabaztea. Edu Orgazek jokalariek ez dute partidu erraza izango, Ormaiztegi ere asko duelako jokoan. Edu Orgazek esanetan, "hemendik liga amaiera bitartean partidu

guztiak finalak izango dira gure-tako, eta bihar lehena jokatu dugu. Gure onena ematen badugu, partiduak aurrera ateratzeko gauza izango garelakoan nago". Joaneke partiduan, Bergarak gol bategatik irabazi zuen Ormaiztegi, 30-31.

Aurreko zapatuan, Bergarak 37-28 galdu zuen Leioan, UPV-EHU Askartza taldearen aurka. Lehen zatia 15-nako berdinketarekin amaitu zen eta bigarren

zatian bergararrek markagailuan aurretik egon ziren. Hala ere, azken minutuetan behera egin zuten Orgazek mutilek eta 9 goleko aldearekin galdu zuten. Entrenatzaile bergararrak esandakoaren arabera, "azken partiduetan gauza bera gertatu zaigu, partiduak amaitzeko dagoenean pot egiten dugula alegia. Hori zuzendu beharra daukagu kategoriari eutsi ahal izateko". Biharko partidurako Orgazek ez dauka inolako bajaranik. Zaleen laguntza ere garrantzitsua izango da bihar.

### GAZTEK ETA NESKEK, GALDU

Bestalde, joan den zapatuan, senior mailako nesken taldeak etxean galdu zuen Ermuaren aurka (19-23). Eta Josetxo Muniategi zuzentzean duen gazte mailako mutilen taldeak ere Elgoibarren galdu zuen, 31-23.

**Bergara Ormaiztegiaren aurretik dago sailkapenean, 12. postuan, hain zuzen**

## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

18:00: Mongatxurak-Agirrebeña. Aterpe  
19:00: Bayer-Aterpe. Agirrebeña

#### DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Errotagain-Irubide. Las p. de Satan  
10:30: A Ze Flaxa-Las p. de Satan. Errotagain

11:30: Etengabe-Ganbara. A Ze Flaxa

12:30: Bedarreta-Cipote Nucleico. Etengabe

17:00: TNT-Belengua. Dedo Pafarru

18:00: Dedo Pafarru-De Ore. Torrekua

19:00: Torrekua-K.Piperrak. De Ore

20:00: Canalejas-La Quinta. K.Piperrak

### OHARRA

#### HAINBAT JOKALARI ZIGORTUTA

Argandolaseko Javi Pineda eta Dedo Pafarru taldeko Ganix Garcia partidu batekin zigortu ditu antolatetako. Bestalde, Las putas de Satan taldeari hiru puntu kendu dizkiote arbitrazterez ez joategatik. Etengabe ere hiru puntu gutxiago ditu, ez jokatzegatik.

## ELKARRIZKETA

UXUE RODRÍGUEZ/BETIZU TALDEKO KIDEA

**“Betizu taldearekin Bergaran abesteak izugarri poztuko ninduke”**

MONIKA BELASTEGI

Uxue Rodríguezek 11 urte ditu. *Betizu*-k antolatutako lehiaketan abeslari onena aukeratu zuten beste hiru neska-mutikorekin batera Betizu musika taldea osatzeko. Diskoa grabatu dute eta aurkezpen biran dabilta.

**Betizu-n aukeratu zintuzten beste hiru lagunekin batera taldea osatzeko. Sari moduan New Yorkera bidaiatu eta diskoa grabatzea jaso zintuzten. Joan zara New Yorkera?**

Ez, oraindik ez gara joan. Gure asmoa da Aste Santuan joatea, apirilaren 17an. Zazpi egun inguru emango ditugu han. Gurasoekin eta gainerako taldekideekin eta haien gurasoekin joango gara.

**Diskoa grabatu duzue eta dagoeneko salgai dago disko dendetan.**

Orain dela hilabete grabatu genuen. Bi astean grabatu genuen; bi eguazten arratsaldean joan ginen estudioara. Hiru ordu inguru eman genuen egun bakoitzeko grabatzen.

**Hamahiru abestik osatzen dute *BT 1.0* diskoa.**

Bai, hamahiru dira, eta denetarik: balada heavyak, bole-roak, alaiak, lasaiagoak... Pixka bat denetarik.

**Grabatze lana gustatu zaizu?**

Askok. Oso polita izan da. Orain arte telebistan egiten ikusi izan ditudanak nik neuk egin ditut, eta oso polita iruditu zait. Batzuetan pixka bat nekagarria izan da, baina pixka bat bakarrik.

**Bideoklipak ere grabatu dituzue.**

Lau grabatu ditugu: *Zuzen-zuzenean*, *Ardiak bezala*, *Esai-dazu* eta *Zure begiez*. Gainera, diskoarekin batera *Zuzen-zuzenean* kantuaren bideoklipa ere eskura daiteke: diskoa ordenagailuan sartuz gero, bideoklipa ikus daiteke.

Bideoklipak grabatzen ere oso ondo pasatu dugu. Besteak beste, Bilbon grabatu dugu, tranbian eta metroan, eta Pasaian, txalupa artean.

**Aurreko astean jarri zuten diskoa salgai. Lagunek eta ikas-kideak erosiko zuten honez-kerok.**

Uste dut Bergaran nahikotxo saldu dela. Bilintx dendan egon nintzen aurreko astean; pixka batean saltzen laguntzera joan nintzen, eta dendakoak esan zidan disko asko saltzen ari direla. Eta ni pozik. Lagunei ere asko gustatu zaie; hori esan didate.

**Diskoarekin batera bira bat egitekoak zarete.**



MONIKA BELASTEGI

**“Jendeak animatu egiten nau, eta autografo mordoxka ere sinatu dut. Askok gustatzen zait”**

Lesakan egin dugu lehen emanaldia. Bigarrena Ondarroan egingo dugu, martxoaren 9an; gero, Donostian, 19an; eta azkena, Bilboko La Casillan, 29an. Horiek egingo ditugun lehenengoak dira. Aurrera begira gehiago egingo ditugu; Bergaran abesteak izugarri poztuko ninduke.

Lau emanaldi horietan 17 kantu abestuko ditugu: lau, bakoitzak banaka; bi *Betimu*-koak eta gainerakoak diskoan daudenak.

**Eta jende ugari begira duzula jakiteak ez dizu beldur pixka bat ematen?**

Ez, kontrako. Gozatu egiten dut jendea saltoka ikusten. Gainera, zenbat eta jende gehiago ikusi, orduan eta abesteko gogo handiagoa ematen dit.

**“Etorkizunaz ez dakit zer esan; honetan jarraitu nahiko nukeen edo beste zerbaitetan...”**

**Erraz eraman daitezke ikasketak eta lana batera?**

Bueno, ez da oso erraza. Baina ohitu egiten zara. Pixka bat nekagarria da. Gainera, asteburuetan lagunekin ibili beharrean, bada, kontzertuak eta eman beharra daukagu, baina bueno...

**Jendeak ezagutuko zaitu.**

Bai, ezagutzen naute, eta izugarri gustatzen zait. Animatu egiten naute, eta autografoak ere eskatzen dizkirate. Mordoxka bat sinatu dut.

**Nahiko zenuke etorkizunean honetan jardutea?**

Ez dakit. Oraingoz ezin dut gauza handirik esan, ez dakit-eta zer gertatuko den. Etorkizunean, agian beste gauza bati ekingo diot.

**Martxoaren 8rako ‘Ai, ama!’ lana ekarri du Ongizate Sailak**

MONIKA BELASTEGI

Bihar, zapatua, Emakume Langilearen Eguna dela eta, Hika taldea ekarri du Ongizate Sailak. Antzerki talde horrek *Ai, ama!* ikuskizuna egingo du bihar, 20:00etan, Udal Pilotalekuan.

Arantxa Iturberen *Ai, ama!* liburuaren egokitzapena da Hika taldeak egingo duen antzezlanak; Arantxa Iturbek berak eta Agurtzane Intxaurrek egingo duen egokitzapena, hain justu ere.

Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola eta Pilar Rodríguez aktorek emakume eta ama izateaz jardungo dute obran.

Batek garbi dauka ez duela ama izan nahi: *Inoiz ez, zertarako?* Egun baten, bat-baten, galdera aldatzen zaion arte: *Zergatik ez?* Amatasunaren deia esa-

ten diote batzuek. Berak ez dio izenik jarri. Bigarrenak galdera nagusia aspaldian egin zuen. Baina ezin izan du umerik izan orain arte, hiru urte kosta zaito, beste ezertan ez pentsatzeraino. Hirugarrenak, galdera bakarrik aurreratu du: *Galderak? Ze galderak?* Galderak egiteko betarik izan ez duen belaunaldikoa delako.


Komedia poetikoa da *Ai, ama!* desioak, negarrak, irribarreak, beldurrak, erruak, ametsak... Denetarik sentimenduak agertuko dituzte hiru emakumeek.

**BIHAR, MARTXOAK 8**

Bihar, zapatua, Emakume Langilearen Eguna da, eta egun horretan lotuta antolatu du Ongizate Sailak emanaldia. Sarrera arruntak zortzi euro kostatzen da; 26 urtetik beherakoendako eta langabeendako, sei euro; eta 17 urtetik beherakoendako, bi euro.



Ainhoa Aierbe, Pilar Rodríguez eta Miren Gojenola dira hiru aktoreak.

**Industrializazioa hizpide martitzenean**

Martitzenean, hilaren 11n, hitzaldia egingo du Eduardo Alonso Historian katedradunak. Udal Agiritegiak antolatu duen Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldi sortaren barruan egingo du hitzaldia. *Un panorama de la industrialización vasca: Beasain, Mondragon, Bergara* gaia izango du hizpide. 19:30ean, Miguel Altuna Institutuko areto nagusian. /M.B.

E, TXO!

**ETXEBIZITZAREN GAINEKO  
KAFE-TERTULIA**

Gazteak arduratzen dituen gaia da etxebizitzarena, eta asko berba egiten da horren gainean. Bergarako Gazte Asanbladako kideek kafe-tertulia antolatu dute, gai horren gainean jarduteko eta hausnartzeko.

Gaztetxean egingo dute tertulia, etzi, domeka, 18:00etan.

**ZAPATUAN AURKEZTU ZUTEN  
'GAZTESAREA.ORG'**

Gaztesarea ekimenak webgunea aurkeztu zuen martxoaren leian, zapatuan. Hain zuzen ere, [www.gaztesarea.org](http://www.gaztesarea.org) helbidean aurkituko duzue webgune hori.

Gazteekin lotutako erreportaje, iritzi artikulua eta bestelako berriak topatuko ditugu webgune berri horretan.

Lehendabiziko egun hauetan, esaterako, kontsumoaren gaineko artikulua irakurri ahal izango duzue.

Bestalde, musikaren, kulturaren, sexualitatearen eta ikasketen gaineko sailak ditu webguneak.

**GAZTE TXARTELA  
ESKURATZEKO AUKERA**

Aurreko astean aurkeztu zuten Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Gazte Txartel berria. Hemendik aurrera, Euskadiko Kutxan eskuratu ahal izango da txartel hori.

KZGuneak, bestalde, laguntasuna eskainiko du Gazte Txartela egiteko; txartela lortzeko dirua sartu behar da Euskadiko Kutxan, eta KZGuneak hori egiteko beharrezko inprimakia Internet bitartez lortzeko aukera ematen du.

Gogora ezazue, era berean, Irizar jauregian dagoela KZGunea, lehenengo solairuan.

**GUREGAIK/ GAZTEENDAKO LITERATURA ESKAINTZA**

**Gaztetxoek asko irakurtzen dute**

AINTZANE IRIZAR

**Horixe esan digute Udal Liburutegiko arduradunek. Gaztetxoei zuzendutako gero eta gehiago dago, gainera; eta euskarazko liburuen eskaintza asko zabaldu da azkeneko urteotan.**

Gaztetxoendako liburuen eskaintza oso zabala da; liburu horien guztien artean aukeraketa bat egin nahi izan dugu Udal Liburutegiko arduradunen laguntzarekin.

Azkenaldian jaso dituzten liburuen artean, honako hauek gomendatu dizkigute: euskaraz idatzitako liburuen artean, Mariasun Landa idazlearen honako bi

lan hauek: *Galtzerdi suizida* eta *Krokodiloa ohe azpian*. Biak ere 12 urtetik aurrerako gaztetxoendako dira.

Gaztelaniazko liburuen artean, berriz, hona hemen pare bat gomendio: Jordi Sierra i Fabra-ren *Campos de fresas* eta *Por qué a mí*, Valeria Piassa Polizzirena. Azken hori Alfaguararen Alerta Roja bildumakoa da. Bilduma hori gaztetxoei zuzendutako liburuek osatzen dute.

Aipatzekoa da, bestalde, gaztetxoendako liburuen txoko berezia dutela Udal Liburutegian.

Bertako arduradunen esanetan, nobela errealistak dituzte gustukoak gaztetxoek, euren arazoak eta errealitatea islatzen dituzten istorioak.



Gaztetxoendako liburuen eskaintza oso zabala da.

**LOTSABARIK/ Oihana Iñurrategi**

**“Denari alde ona topatzen saiatzen naiz”**

A.I.

Jendaurrean egoteak eta berba egiteak izugarri lotsatzen ei dute Oihana; hala ere, elkarrizketarako proposamena egin orduko, baiezkoa eman zigun. Hori bai, ez digu esan ze fantasia sexual duen.

• **Txikitán, zer izan nahi zenuen?**

Ezer berezirik ez; ume askoren moduan, mediku edo ile apaintzaile izan nahi nuela esaten nuen.

• **Hemendik 20 urtera zelan ikusten duzu zeure burua?**

Espero dut lanean jardutea eta bizimodu normala eramatea;

dena dela, etorkizunaren gainean ez dut askorik pentsatzen.

• **Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriz?**

Betikoa: etxeko lanak egiteko eta ikasketetan ahalegintzeko.

• **Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.**

Ez daukat taktikarik, ez naiz kontrolatuta sentitzen. Gainera, bost anai-arrebatatik gazteena naiz, eta bidea egin didate haiek.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Lagunei.

• **Zure bertute bat?**

Oso alai naiz; gauzak ondo hartzen ditut. Gauza txarrei ere alde ona topatzen saiatzen naiz.

• **Etā hutsune bat?**

Lotsatia naiz; gehienbat, jendaurrean berba egiteak izugarri lotsatzen nau.

• **Zerk amorratzen zaitu?**

Aurrez aurre jator azaldu eta buelta hartu orduko nitaz gaizki esaka jarduten duen jendeak.

• **Zure gorputzeko atalik gustukoena?**

Ez daukat bereziki gustuko dudana atalik.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?**


Izaerari; jende alai gustatzen zait.

• **Zer egiten duzu seduzitzeko?**

Ezer ere ez.


• **Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?**

Hori oso pertsonala da.



**ADINA:** 17 urte • **IKASKETAK:** Batxilergoko lehenengo maila • **ZALETASUNAK:** Kirola egitea, lagunekin irtetzea eta parranda egitea • **LIBURU BAT:** 'Atabala eta eurria', Sarrionandiarena • **FILM BAT:** 'Los lunes al sol' • **MUSIKA TALDEA:** Amparanoia • **KIROL TALDEA:** Reala

**TIRABIRAKA/ Oihan Vega**

			<p>Madrilgo Entzutegi Nazionalak itxi egin du nire komikia.</p> 
--	--	--	---

## ZAHARREN ETXETIK

## Inauteriak ospatzeko, bazkaria San Joxepen



Bazkalostean kantuan jardun zuten San Joxepeko lagunek. Primerako giroa izan zuten arratsalde osoan.



Eguneko Zentrokoak eta San Joxepeko atezain Luis Gantxegi izan ziren moztortu ziren bakarretakoak.

## EDU MENDIBIL

San Joxepe elkarteko lagunek Inauteriak ospatzeko bazkaria egin zuten martitzenean. Azken urteotako ohiturari eutsiz, umore ezin hobea eta lagun arteko giroa izan ziren nagusi. Hala ere, bes-

te urte batzuetan baino moztortu gutxiago ikusi genituen. Horren harira, Eguneko Zentroan dabilzanak izan ziren animatuenak moztortzeko orduan. Guztira, 120 lagun elkartu ziren San Joxepeko jangelan egindako bazkarian. Primeran bazkaldu ondoren, azken urteotan moduan, Iñaki

Quintanillak alaitu zuen dantzaldia. Soinuaz lagunduta, baltsak, pasodobleak eta bestelako piezak eskaini zituen Iñaki Quintanillak. Hala, San Joxepekoek lotsak alde batera utzi eta dantzarako estilo bikaina erakutsi zuten. Dantzaldiak 20:00ak ingurura arte iraun zuen.

## ZUZENDARITZA BATZORDEA BERRITU

Bestalde, San Joxepe elkarteko bazkideek urteko batzar orokorra egingo dute apiril bukaeran. Beste gai batzuen artean, Zuzendaritza batzordearen berritzea izango da aztergai; hala, batzordeko kide izateko interesa dutenek martxoaren 31 baino lehen eman

beharko dute izena.

## HITZALDIA EGUAZTENEAN

Antsietatea eta estresaren gaineko hitzaldi sortaren barruan, German Derteanok erretiroak dakartzan aldaketen gainean jardungo du eguaztenean, hilaren 12an, San Joxepen, 17:30ean.



## Giza proiektuen gestio ikastaroa

Patricia Ponce Haurralde Fundazioko zuzendariak (argazkian) giza proiektuen sorrerako eta gestiorako ikastaroa emango du San Joxepen, martxoaren 11n, 14an eta 21ean. Lehen bi egunetan eskolak 10:00etatik 14:00etara izango dira eta martxoaren 21ean, 09:00etatik 15:00etara. Matrikula doakoa da eta erretiratu ez ezik, ikastaroa edozein herritarri zuzenduta dago. Ikastaroan parte hartzeko gogoia dutenek San Joxepen bertan eman dezakete izena, 943 76 30 09 zenbakian.

## LABUR

## Mendi irteera eguaztenean, hilaren 12an

Urteko mendi irteeren programazioarekin jarraituz, San Joxepe erretiratu elkarteak irteera iragarri du datorren eguaztenerako, hilak 12. Ibilbidea honako hau izango da: Zumarraga-Santa Barbara-Trekutz-Gorla. Bazkaria Gorlako kantuan egingo dute eta prezioa 7,5 eurokoa izango da. Irteera 09:00etan izango da, beheko estazioetik. Interesatuak San Joxepeko harrera gelan eman beharko dute izena. Argibideak 943 76 30 09 zenbakian jaso daitezke.

## ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE  
PANADEROKUA

Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

GOIERRI  
AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Zein izen du Osintxuko baserri honek?

**GALDEDEBALDE**

**1.**

Ze mendetako da Errotalde parkean azaldutako arkuak?

- A/ XIV. mendekoa.
- B/ XVI. mendekoa.
- C/ XIX. mendekoa.

**2.**

Zenbat abesti ditu Uxue Rodriguezek eta Betizuko lagunek grabatutako BT 1.0 diskoa?

- A/ 13.
- B/ 17.
- C/ 11.

**3.**

Zenbagarren denboraldia beteko du Ander Agirre txirindulariak Ulma-Cegasan?

- A/ Bigarrena.
- B/ Hirugarrena.
- C/ Laugarrena.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

EDITH MIOTArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Edith! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: San Pedro kalean / Galde debalde: 1-B, 2-C, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE .....1/..... 2/..... 3/.....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....


**Don Rodrigo ardoa**

Beltza eta gorria. 75 cl-ko botila

**0,60€**

100 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



E.M.

**PINTOREBERGARARRAKGAUR**

**Marino González**

EDU MENDIBIL

**A**vilako Cuevas del Valle herrian jaiotakoa, Marino Gonzálezek (1945) bergarartzat dauka bere burua, 1960ko hamarkada ezkerreko hemen bizi da-eta. Gaztetan hasi zen lumatxoarekin marrazten eta bere kabuz ikasi duela diosku. Etxeko estudioan marrazki eskolak ematen ditu aspalditik. Nagusiki lumatxoarekin marrazten du, baina, era berean, pastelarekin erretratuak egiten ditu: "Marrazkilari guztion erronka nagusia erretratua da. Erretratuan ez dago huts egiteko tarterik. Lumatxoa ere oso nekeza da, asko landu beharra dago, xehetasun handiz egindako lanak izaten direlako". Egunero ordubete inguru marrazteko ohitura dauka, marrazteari ordu gehiago eskaintzea nahiko lukeen arren. Tintontzian bustitzen den lumatxoarekin egiten du lan. Herriko txoko gehienak marraztu ditu, eta Agarreko Garaixea askotan agindu diote.

Erakusketa kolektiboetan hartu izan du parte, eta etorkizunean Bergararen gaineko erakusketa egin nahi luke, hain zuzen ere, "lumatxo-zo lanen bitartez herriko balio artistikoa ezagutzera emateko".

*"Herriko balio artistikoa ezagutzera emateko lumatxoaren erakusketa egin nahi nuke"*

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

**Bolu**  
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurria

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta lumatxoak

Koldo Eleizalde 1. Bergara. Tf. 943 76 70 60



ELGETA  
**Ainhoa Azkarraga-Urizar**  
Hilaren 8an 7. Zorionak!  
Etxekoak eta launak.



BERGARA  
**Maitane Urkiola**  
Martxoaren 11n 2 urte.  
Zorionak! Eneko, Ainhoa  
eta osaba-izebak.



BERGARA  
**Aitor Garitano**  
Martxoaren 8an 3 urte.  
Zorionak! Etxekoak;  
bereziki, Amaia.



BERGARA  
**Ibane Baseta**  
Martxoaren 8an 14 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Euken Azpeitia**  
Martxoaren 4an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Lierni.



BERGARA  
**Jon Agiriano**  
Martxoaren 1ean 9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Maria Jesus Urkiola**  
Martxoaren 13an 40  
urte. Maitane eta  
Maialeren partatik.



BERGARA  
**Julen Arriola**  
Martxoaren 12an Urte  
bat. Etxekoak.



BERGARA  
**Maria Jesus Urkiola**  
Martxoaren 8an 2 urte.  
Gurasoak eta Christian.



BERGARA  
**Argiñe Varela**  
Martxoaren 8an.  
Gurasoak eta ahizpa  
Nekane.



BERGARA  
**Maddi Alberdi**  
Martxoaren 8an 6 urte.  
Etxekoak eta Ugarrizako  
familia.



BERGARA  
**Bitoria Larrañaga**  
Martxoaren 7an.  
Ugarrizako familia.



BERGARA  
**Olaia Arriola**  
Martxoaren 10ean 9 urte  
bat. Gurasoak eta  
familia.



BERGARA  
**Ander Etxezarreta**  
Martxoaren 7an 9 urte.  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maitane Urkiola**  
Martxoaren 11n 62 urte.  
Aitatzeko eta amatxo.



BERGARA  
**Eneko Etxeberria**  
Martxoaren 12an 4 urte.  
Etxekoak.



BERGARA  
**Iker Nogueiras**  
Martxoaren 8an 3 urte.  
Etxekoak eta bereziki  
June.

**Adi!**

Argazkiak emateko  
lekuak:  
**Bergara:** Berrigara,  
Irizar jauregia,  
Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udai  
Liburutegia,  
astelehenera  
17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-  
Balxongua

Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!  
Zorionak!

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAREN agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

943 76 20 61  
BERGARA

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tf.: 943 76 55 74

**IKUSBI**

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala 5  
BERGARA  
943 76 53 09

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

DEBA  
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telesforo Aranzadi 2 behe  
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**ARDATZA**

Brikolajea

Ateak eta zokaloak	Koadroak markoan ipini
Horma-armairuak	Era guztietako moldurak
Sarrailak	Apalak
Heldulekuak	Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

PINTXO eta BOKADILORAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92



#### ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXE, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

**GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### MASAILARIAK

**AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

**OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

**ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2001eko urriaren 19a / 87. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Gazteek laster izango dute euren lokala

AINTZANE IRIZAR

Maristen eraikina itxi zutetik, gaztetxe barik egon dira gazteak. Udaleko arduradunek, berriz, gaztetxea jartzeko lokal egoki baten bila jardun dute. Bi aukera zituzten esku artean; egueneko osoko bilkuran erabakitzeak ziren bietako zeinetan jarri gaztetxea.

Mireia Unamuno alkateak esan zigunez, gaztetxea jartzeko moduko lokal egoki bat topatzea ez da lan erraza izan; alde batetik, gaztetxearen berezitasun batzugaririk, zaratarengatik, esate baterako, lokal berezia behar zelako; bestetik, lokalen ugazaba batzuek ez zutelako errentan eman nahi.

Kontuak kontu, azkenean, gaztetxea jartzeko moduko lokal bat topatu zuten, oinetako denda egon zena, Kalebarrenean. Aukera hori esku artean zutela, Surpe taberna itxi behar zutela jakin zuten, eta ugazabak gertu egongo liritekeela errentan emateko.

Udaleko ordezkariak aukera biak aztertzen jardun dute, eta egueneko osoko bilkuran horietako baten aldeko erabakia hartzeak ziren.



Baliteke oinetako denda egon zen lokalean jartzea gaztetxe berria.

**GAZTEEK, KALEBARRENGO NAHIAGO**  
Gazte Asanbladako kideekin hartu-emanetan jardun dute Udaleko arduradunek. Aurreko astean egindako batzarrean gazteek adie-

razi zieten nahiago zutela Kalebarrengo lokala. Zera esan zuten: "Ez dugu nahi lehengoan erortzea; gaztetxea taberna hutsa baino gehiago izatea nahi dugu".

## GAZTETXEA

### Lurraldearen Zatiko Plana aurkeztu zuten

AINTZANE IRIZAR

Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak ezagutzera eman dute Lurraldearen Zatiko Plana; hain zuzen, Debagoienarendako hainbat ekimen proposatu dituzte. Eguaztenean, plan hori idatzi duen Jose Migel Toledo arkitektoa udaletxean egon zen, plana azaltzen.

Udaleko ordezkari eta teknikariek plan horretan batzen diren ideia, proposamen eta aurreikuspenen gaineko azalpenak ematera etorri zen Toledo eguazten arratsaldean. Debagoieneko ekimenei gaineko azalpenak ematera, baina, bereziki, Antzuolaren gainekoak. Izan ere, Debagoienaren gaineko plana den arren, herri bakoitzean aurrez ikusten diren ekimenak ere zehazten ditu.

Udalek arau subsidiarioak egiten dituzten moduan, Diputazioak Lurraldearen Zatiko Plana egiten du. Horrela, datozen urteotan hainbat arlotan egingo diren ekimenak aurrez ikusten ditu, eta hainbat irizpide zehaztu. Datozen 16 urteetarako aurreikuspena egiten du, hain zuzen ere.

## HAINBAT EKIMEN BERRI

Antzuolari dagokionez, orokorrean, arau subsidiarioetan aurrez ikusten diren ekimenak jasotzen ditu LZPK. Hainbat herri-tan gertatu da arauetan eta planetan jasotakoak bat ez etortzea. Antzuolaren kasuan, baina, arau subsidiarioak eta plana arkitekto talde berak egin izanak horrelakoak ekidin ditu.

Dena dela, badago ekimen berri bat, arauetan aurrez ikusten ez dena: Ely lantegiaren inguruetan etxebizitzak egitea, hain zuzen. Beste hainbat proposamen ere egiten dituzte; hona hemen horietako batzuk: Bergarekin hobeto komunikatzea, industria guneak bultzatzea, etxebizitza gehiago egitea, horrela, biztanleria bultzatuz...

Bestetik, garraio bide eta komunikazio bideek garrantzi handia hartzen dute, tranbiak, esaterako. Lurraldearen Zatiko Planaren arabera, tranbia ez da gurera iritsiko, baina lotuta egongo gara autobus zerbitzuen bitartez. Hor ditugu, bestetik, Abiadura Handiko Trenaren proiektua eta Beasain-Durango autobidearena, esaterako.


## HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

### Beste itxiera bat

Lehenik eta behin, nire elkartzasuna Enekoitz, Aritz eta euren egunkari-ko lankideei. Lanean lehenbait lehen hasteko aukera izan dezatela, eta *Euskaldunon Egunkaria*-n, gainera.

Azken egunotan, hala ere, izan da Antzuolan beste itxiera mingarri bat ere, bestearekin zerikusirik ez duena. Surpe taberna itxi dute. Hogeitabat urte egingo zituen zabalik, Peito mostradore atzean zuela. Domekan itxi zituzten Surpeko ateak, eta zenbait bezerori negar malkoak ere isuri eizitzaizkion. Ikusitakoen berbak dira.

Gaztetxearekin batera samar ireki zuten Surpe eta zenbait lagun koadrilarentzat, batentzat, batez ere, bilgune izan da urte askoan. Bizitza erdiko ordu asko eta asko eman dituzte han sartuta, barrualdeko mahai eta aulkietan, erdi ilunpean. Jokoan egin, kafea hartu, garagardoa edan, aldizkariren bat leitu, Realaren golak ospatu, baita Athletici sartutakoak ere -alderantziz



"Beste itxiera mingarri bat ere izan da herrian: Surpe itxi dute"

egin duenik ere bada, zela ez, bestela futbola ez litzateke futbola izango-, Induraini bultza egin telebistaren bidez, Juan Joxe Pollero-ren hutsunea nolabait bete hura falta izan zen bitartean... Oroitzapen asko dira.

Gogoan dut egubakoitz gau bat. Ez zen ezer berezirik ospatzen Antzuolan, baina hiruzpalau koadrila elkartu ziren Surpen. Bezero bat mostradore barrura

sartu eta bera hasi zen zerbitzatzan, kobratzen, musika jartzen, kantuan... Sekulako giroa sortu zen. Kantuan, dantzan... han ez zen inor geldirik geratu. Orduak eman genituen Surpetik beste inora mugitu barik.

Santiagonekoa, Larreane-koa eta Ongi Etorri betiko tabernak dira Antzuolan. Surpe berriagoa da, baina bere lekua izan du pare bat hamarkadatan. Bizitzaren gorabeherak direla eta, itxi egin dute eta ikusteko dago aurrerantzean zer gertatuko den harekin. Baina lehengo Surpe zenbaiten gogoan geratuko da betiko.

## KIROLA

### PARTIDUAK

**FUTBOLA**  
Martxoak 8  
16:00: Antzuola-Legazpi (2. erregion.)  
Martxoak 9  
18:00: Antzuola-Segura (Gazteak)

**PILOTA**  
Martxoak 8 (Udaberri Saria)  
17:00: Olalde-Altzatarrak I (nag. palet.)

### EMAITZAK

**FUTBOLA**  
Arrate 0 Antzuola 6 (2. erregionala)

**PILOTA**  
Udaberri Saria  
Altzatarrak II-Olalde (nag. pal.) . 35-26  
Gipuzkoako txap. (finalaurrekoa)  
Olalde-Beharzana (inf. eskuz) . 18-17

ELKARRIZKETA

JUAN CARLOS ALONSO/PSIKOLOGOA

*“Fikzioaren bitartez, ipuinen bitartez, errealitatea uler dezakete umeeak”*

A.I.  
A tzo, eguena, hitzaldia egin zuen Juan Carlos Alonso Herri Ikastetxean. Ipuinek umeendako duten garrantziaren gainean egin zuen berba. Datorren egunean, hilaren 13an, gai beraren gaineko bigarren hitzaldia egingo du.

Lehenago entzun nion aditu bati esaten, arazoei aurre egiteko baliabideak ematen dizkietela ipuinek umeei.

Bai; normala denez, euren egunerokotasunean arazotxoak edo gatazkak dituzte umeeak: beldurak, konplexuak... Zer gertatzen zaien ulertzeko beharra dute, baina ume txikiak oraindik ezin dituzte ulertu errealitatearen zergatiak, ezin direlako besteen lekuan jarri. Baina fikzioaren bitartez, ipuinen bitartez, errealitatea uler dezakete, horiek umearen maila psikoafektibo berean gertatzen dira-eta. Horren harira, ipuinen amaiera oso garrantzitsua da, arazoaren irtenbide egokia proposatzen diolako umeari.

Zer da ipuin on bat?

Umea gorantz bultzatzen duena; hau da, errealitatetik ihes egiteko aukera ematen diona. Irudikatzen gonbidatzen duena, ipuinean ikusten edo entzuten duena baino gehiago eskaintzen diona. Azken baten, umearen sentimenduetatik ukitzen duena. Zelan aukeratu umearendako ipuin bat?

Lehenik eta behin, istorio on bat eskaini behar dio, umearen nahiekin eta bizitzarekin zerkusia duena, identifikatzea errealitatearen istorioa eta abentura txikiak edo handiak gertatzen diren.

Irakurtzen ez jakin arren, ipuinek asko erakutsi diezaiekete umeei, ezta?

Hizkiak irakurtzen ez jakin arren, ume txikiak beti bereganatzen ditu mezuak, ulertzen du irudi bat ikusten duenean edo kontakizun bat entzuten duene-



PEÑAFLORENDA IKASTETXEA

*“Ipuinaren amaiera garrantzitsua da, arazoaren irtenbide egokia proposatzen diolako umeari”*

an. Horren harira, umeak irakurri egiten du, irakurtzen jakin barik ere. Jaiotzen denetik badauki irakurtzen.

Ipuinak kontaktzeak ere garrantzia dauka, ezta?

Bai. Ume batek guk ipuin bat irakurtzeko eskatzen badigu, zer

*“Umeak ipuina kontatzeko eskatzen badigu, gurekin egon nahi du, elkarrekin egotea”*

nahi du? Jakina, ipuin bat kontatzea. Baina baita gurekin egotea ere. Elkarrekin irakurri behar dugu, partekatuz, afektibitate eman. Bestalde, umeak hitzez ere elikatu behar ditugu, irudi bako kontakizun asko kontatuz, euren irudimena lantzeko.

INAUTERIAK

Kolorez eta dantzaz bete zituzten kaleak

AINTZANE IRIZAR

Giro polita izan genuen herrian aurreko asteburuan. Gurean ere ospatu genituen Inauteriak, eta jende askok hartu zuen parte, gainera.

Egubakoitzean umeen txanda izan zen; egun horretan, mozo-rotuta joan ziren eskolara. Arratsaldean, txokolate eta torrada jana izan zuten, baita Zirko Tti-

piaren emanaldia ere.

Zapatuan, berriz, ekitaldi berri bat izan zen: Gazte Asanbladak antolatuta, hainbat gazte parrokiako egoitzan elkartzeko ziren, mozo-rotu afarian.

Domekan, berriz, ohiturari jarraituz, Inauterietako dantzen txanda izan zen. 10:00etatik ibili ziren dantzariak kalejiran. Eguerdian, berriz, ikuskizun polita eskaini zuten dantzariak plazan.



Domekan, piratek hartu zuten herria.

LABUR

‘Euskaldunon Egunkaria’-ren aldeko herri batzordea osatzeko batzarra deitu dute

Euskaldunon Egunkaria itxi dutela eta, egunkari horren aldeko herri batzordea osatzeko deialdia egin dute herrian. Datorren martitzenean, hilaren 11n, egingo dute batzarra udaletxean, 18:00etan.

Bestalde, Matz-Erreka enpresatik jakinarazi digutenez, enpresako Euskara batzordeak elkartasuna adierazi dio Egunkaria-ri, eta euren esku dagoen guztia egiten saiatuko direla esan dute, “nahi eta behar dugun egunkaria berriz gure artean izan dadin”.

Herriko Paleta Txapelketan izena emateko epea martxoaren 17ra arte luzatu dute

Martxoaren 3ra arte eman zuten Olalde elkarteak txapelketan izena emateko aukera. Oraingoan, sei bikotek bakarrik eman dute izena; horregatik, izena emateko epea hilaren 17ra arte luzatzea erabaki dute. Bide batez, gogora ezazue bi mailatan jokatu dute-la Paleta Txapelketa.

**LARREA**  
TABERNA  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*  
Apainketarako eta industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak  
Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tf. 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*  
Zoruen kutxilatua eta barnizaketa  
Kalegoi 21  
Tf. eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko martxoaren 7a / 133. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Hiru talde hauteskundeetan

OXEL EROSTARBE

Hasi da botoen lasterketa. Badirudi maiatzeko udal hauteskundeetan hiru talde aurkeztuko direla: EAJ eta EA batera aurkeztuko dira; Batasunak aurkezteko ahalegina egiten dihardu; eta Aralarrek eguaztenez ekin zion programak gertatzeari.

Hauteskunde giroa puri-purian dago Elgetan. Azken urteotan ez bezala, hirugarren talde bat aurkeztuko dela dirudi: Aralar. Talde horrek independente ugari izango ditu bere baitan. Orain dela lau urte moduan, EAJ eta EA batera aurkeztuko dira eta momentuan zerrendak gertatzen dihardute. Garzonen zigorra etorri zen arte, Batasuna moduan jardun zuen alderdiak ere ahalegin guztiak egingo ditu hauteskundeetara aurkezteko.

### EAJ-EA, ZERRENDAK EGITEN

Orain dela lau urteko hauteskundeetan moduan, EAJ eta EA batera aurkeztuko dira Elgetan. Orduan, Patxi Basauri izan zuten zerrendaburu. Zerrendak gertatzen hasita daude, eta osatzen

dituztenean emango duten bertan izango direnen berri. Programak lantzeari ere ekin diote.

### BATASUNA, ILEGALIZAZIOAREN BELDUR

Momentu honetan Batasuna ezin izango da izen horrekin hauteskundeetara aurkeztu. Seguruena alderdiaren ilegalizazioa hauteskundearen aurretik gertatuko da, gainera. Gauzak horrela, listak osatzen baino gehiago, hauteskundeetara aurkezteko formulak aztertzen dihardute lehengo alderdi horretakoak ziren kideak. Hauteskundeetan parte hartzea da euren helburua, eta legeak ematen dituen zirrikituak topatzeko ahaleginetan dabilta.

### HIRUGARREN TALDEA, ARALAR

Aurtengo ezustekoa izango da. Herriko hainbat lagun batu dira eta zerrendak osatzeko pausoa eman dute bederatzi pertsonak. Taldea zabalagoa da, ordea, eta orain buru-belarri dihardute hauteskunde programak egiten. Aralarretik esan digutenez, garrantzia programei eman gura diete. Onartu digute politika egin baino gehiago, "herrigintza" egin gura dutela eta horretara bideratuko dutela indar guztia.

## AURKEZPENA

### Elgeta Auzolanian aurkeztu zuten

Aurreko zapatuan aurkeztu zuten, plazan, Elgeta Auzolanian Bilgunea. Jai giroan sortu zuten ezkertiar eta abertzaleen plataforma berria. Eta 50-60 lagunek hartu zuten parte. Ekitaldia txalapartariak zabaldu zuten; gero, erretratu atera aurretik, plataforma sortzeko arrazoiak eta zergatiak adierazi zituzten. "XXI. mendearen hasiera honetan, egoera latzak bizi izaten ari gara, Euskal Herriaren aurkako erasoak gogortzen ari dira, gure hizkun-

tza, kultura, ikurrak edo gure izan nahiaren aurka dabilta. Ezkertiar abertzaleoi bidea moztu nahi digute, gure ideiak eta asmoak ezabatuz".

### LEHENENGO BATZARRA, BIHAR

Elgeta Auzolanian Bilguneak bihar, zapatua, egingo du lehengo batzarra. Udaletxean izango da, 16:00etan. Plataforma zelan egituratu eta zelan antolatu erabakiko dute. Eta helburu zehatzak markatuko dituzte.



Aurkezpenaren ostean, erretratu atera zuten Elgeta Auzolanian Bilguneok.

## LABUR

### Ekintza ugari, gaztetxian urteurrena dala-eta

Gaztetxiak zazpi urte bete ditutuala-eta, herriko gazteiek antolatutako ekintzak gaur hasiko dira. Bihar Emakumien Eguna dala eta, gaur, 19:00etan, tratu txarren gaineko berbaldixa egingo dabe Emakundeko teknikarixak. Gero merienda egingo dabe. Bihar, 22:30ian, Morau eta Agotas taldien kontzertua egingo da gaztetxian bertan.

Martxuan, bestiak beste, arrazismuan gaineko kafe-tertulixia, erretratu erakusketia, Umien Eguna, Ttak eta Cyprinidians taldien kontzertua antolatu dittue.

### Korrikan aldeko batzordian batzarra astelehenian

Datorren astelehenian, martxuak 10, batzarra egingo dabe Korrikan aldeko batzordiek. Batzarra 19:00etan izango da, liburutegixan. Korrika dala-eta zenbait ekintza izango dira apirillean: bestiak beste, Kutsidazu bidea, Exabel antzerkixa eta Txan magoa.

## Elgetako 'Egunkaria batzordeak' harpidetzak egiteko dei egin du

O.E.

**Egunkaria-n lanean diharduten bi elgetarrek, Beatriz Zabalondok eta Haritz Gallastegik, Egunkaria-ren aldeko batzordea aurkeztu zuten Elgetan. Herriko elkartei dei egin diete hurrengo hilabeteotan aurrera eramango diren ekimenak lankidetzan egiteko.**

Jende asko gerturatu zen astelehenean Egunkaria-ren aldeko batzordearen aurkezpenera. Beatriz Zabalondok eta Haritz Gallastegik eman zituzten azalpenak.

Gertatu denaren eta dauden egoeraren berri eman ostean, aurrera begira dituzten erronken gainean jardun zuten. Erronka nagusia ahal den epe laburrenean Egunkaria berrituko erabakia izatea da. Epaileak zein erabaki hartuko zain ere badaude, lehen zituzten bulegoak eta izena erabiltzea izango duten jakiteko. Hurrengo asteotan Egunero argitaratzen jarraitzeko asmoa dagoela esan zuten, eta egunek aurrera egin ahala orri kopurua handituko dute. Herriko elkartei Egunkaria-ren aldeko batzordea etortzeko dei egin zieten. Izan

ere, batzorde horretatik bidertuko dira Egunkaria-ren alde egingo diren ekimenak.

### HARPIDETZAK EGITEAREN GARRANTZIA

Herritarrei Egunkaria-ko harpidedun egiteko dei egin die batzordeak. Harpidetzak egin edo informazioa jaso gura dutenek liburutegian izango dute horretarako aukera. Egunkaria-ren aldeko materiala ere bertan egongo da salgai. Kontseiluak dei egin du datorren egunean herri guztietan ekitaldiak egiteko. Zehaztuta ez dagoen arren, Elgetan ere izango da ekitaldiren bat.



Beatriz Zabalondo eta Haritz Gallastegi izan ziren azalpenak ematen.

JARDUNABALKOITTIK



Oxel Erostarbe

Diarixua erosixena

Periodikua herritarren % 15ak erosten dau gure herrixan. Salduenen zerrendan *Diario Vasca* dago lehenengo, 80 ale; bigarren postuan diarixo deportibua, danera 20; gero *Egin*-en semia, 15 ale; hurrengo abertzalietan azkena, jeltzaliena 10 ale eta zerrenda ixten *El Pais*, 3 ale. *La Razon* eta *ABC* esposiziñuan dare, ale bat bera be ez... Normalian.

Euskaldunon

*Egunkaria*-na ez naiz ahaztu. Bataz beste 15 *Egunkaria* saltzen ziran gure herrixan. Itxi eta hurrengo hiru egunetan, 50 *Egunero* saldu ziran, hurrengo astian 40 eta oingo astian 30. *Egin*-etik *Gara*-ra bidian antzerakua pasau ei zan. Berotasuna hoztu: 50 ale, 40 ale, 30 ale...

Elgetarron % 92 euskaldunak gara. Eta etxe gehixenetan *Diarixua* nagusi. Euskerazko egunkari barrixa bidian dago. Donostiako manifestaziñuan eta Elgetan urtietan egin dan konzentraziño haundixenian, *Egunkaria*-n alde egin ostian, oin, euskerazko egunkarixan alde egitteko ordua heldu da. Momentuan garrantzitsuena harpidetzak egittia ei da. Udalak eredu izan bihar leuke eta liburutegirako harpidetzia egin.

IÑAUTERIXAK

Koadrilla gehixenak mozorrotuta, jai girua izan zan nagusi Elgetako Iñauterixetan

O.E.

Giro aparta izan zan aurreko barikuan, Iñauterixak zirala-eta. Danerako mozorruak ikusteko aukeria izan giñuan: fuel-olixua jasotzen jardun zebe bi lagun, labadorak, sorgiñak, torerak, Gabonetako arbolak, infernuko aingeruak, futbol amerikarreko jokalarixak, *Egunkaria*-n zaliak... Arratsaldian hasi ziran Iñauterixak gure herrixan. Eskolan jolasak izan ziran umiendako, eta gero, gurasuak gertautako txokolatadia izan zebe Ozkarbi elkartian. Eguna illundu ahala, umiak etxeruntza eta nagusixaguak hartu zittuen kaliak. Illuntzerako baztarrak nahasten hasi ziran. Etxafleruen zaratiak lo egittia eragotzi zotzen etxian geratu zirane; kalian, barriz, jai-xa nagusi. Gaztetxian dantza egin ostian, plazan batu ziran mozorrotutakuak. Zezenetan egin ostian, mozorrotuta zeren tabernetara... Urtero moduan, goizeko argixakin topo egin zebe batek baiño gehixagok. Originalenak hasi dira Ferixa Nagusixetarako mozorruak gertatzen.



Askotariko mozorroak ikusteko aukera izan dugu aurtengo Iñauterixetan; hurrengo mozorro eguna jaietan izango da.

Estampaciones Intxorta, txapeladun

O.E.

Aurreko domekan, Eibarko Saskibaloia Txapelketa irabazi zuen Estampaciones Intxortak. Azken partidua jokatu orduko Estampakoek bazekiten liga irabazia zutela. Hala ere, azken partiduan 58-37 irazi zioten sailkapenean bigarren zegoen Bar Azitaini. Elgetarrek lan bikaina egin dute txapelketan. Parte hartu duten zazpi taldeak baino hobek direla erakutsi dute partidu gehixenetan. Esan behar da, ordea, Eibarko Saskibaloia Txapelketa-ko mailak behera egin duela.

Eibarren saskibaloiarekiko zale-tasunak beherakada nabarmena izan du. Lehenago, 24 taldek hartzen zuten parte txapelketa horretan, eta Elgoibarko, Ermuko eta Arrasateko taldeek ere hartzen zuten parte. Elgetarrei ez zaie meriturik kendu behar, ordea, urte batetik bestera euren mailari eutsi diote-eta.

ASTE BUKAERAN HASIKO DA KOPA

Domekan, 16:30ean, Eibarko Celtics taldearen aurka jokatuko dute Estampaciones Intxortako mutilek. Iaz moduan, aurten ere Kopa irabaztea dute helburu.



Aurten ere Kopa irabaztea dute helburua Estampaciones Intxortako mutilek.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g. Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

BOLATOKI

Taberna  
Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak, ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artetale 2, ELGETA. 943 76 82 84

## ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Pertxako  
gaztetxo  
futbol taldea

**P**ertxa elkarteko futbol taldea duzue hau. Garai baten Seminarioan jokatzeko zen herriko futbol txapelketa, eta finalak Pazkoetan izaten ziren. Hainbat mailatan banatuta talde asko izaten ziren lehian, eta ikusle asko hurreratzen zen partiduak ikustera. Alboko argazkia 1976aren ingurukoa da, Pertxako gaztetxoek kopa bat eskuratu zuteneko. Juan Egaña *Pitia* zen entrenatzailea, eta sasoi hartan Realean zebilen Agustin Arantzabal *Gaztelu*-k eman zien trofeoa.

Honako hauek agertzen dira eskumako argazkian, ezkerretik eskumara. Zutik: Eukeni Zabala, Jaime García, Asier Madinabeitia, Agustin Arantzabal *Gaztelu*, Joxe Lazkano, Gotzon Zabala, Mari Angeles Alkorta eta Joseba Moñux. Makurtuta: Juan Egaña *Pitia*, Eneko Azkarate, Mikel Lazkano, Josu Lazpiur, Josu Inclán eta Jon Ander Egaña.

Argazkia: Jon Ander Egaña



## ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA

Bergara, orain  
dela 70 urte

**E**zkerreko irudiaren eta eskumakoaren artean 70 urte inguruko aldea dago. Jasotako datuen arabera, ezkerreko erretratua 1931n ateratakoa izan daiteke. Bidekurutzetako Zabala jauregia botata zegoen ordurako. Bestalde, garai baten garrantzi handia izan zuen Textil Lasagabaster enpresa, beheko estazioa, Bergarako Seminarioa edo San Pedro eliza ikusten dira ezkerreko irudian.



≈ 1930

Begarako bista bat 1930eko hamarkadaren hasieran. Behean ikusten dira beheko estazioa eta Textil Lasagabaster enpresa.



2003

Surratik ateratako argazki honetan herria zelan handitu den antzeman daiteke. Ortuak zeuden lekuan, esaterako, etxebizitzak egin zituzten.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**OILAGORRA**  
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

**MUJIKA** FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

# GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako

## ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20  
943 76 11 73  
Erakusketa:  
Bidekurutzeta 38  
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak



**Informatika aholkulariak**

Eguzki auzoa  
5, behea  
ANTZUOLA  
943 76 65 13  
F 943 76 65 14

- Gremio guztietarako programazioa
- Ekipo osoa instalatuko dizugu



## AGIRRE MARGOAK

Ortuibar 1, 3-C  
943 76 53 82  
Tailerra:  
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak



## UR kristaldegia

Martoko 1-3  
943 76 54 68

- Ispiluak
- Beirateriak
- Biselatuak
- Plastikokoak

## UGARTE AROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A  
943 76 54 91  
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek



## UREDERRA ITURGINTZA

51 p.k.  
686 943 918

- Iturgintza
- Berogintza
- Aire egokitua
- Konpondu eta saldu

## El izarra elektrizitatea

Zubieta 10  
943 76 54 10  
943 76 19 99  
943 76 10 60

- Orotariko instalazio elektrikoak

## BERGARA Margoak


Amillaga 1, 1. pab.  
162 p.k.  
943 76 97 31  
F 943 76 97 32  
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



# GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



Araba Etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**



Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**



Andramari auzunea 1  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

